

opusdei.org

Joseph Pearce idazlea Aiete ikastetxe nagusian

Joseph Pearce, idazle ingelesa eta Floridako Unibertsitateko irakaslea, espainiar estatura etorri da estreinako aldiz, Donostiako Aiete ikastetxe nagusiak

2009 Api 4

Joseph Pearce, idazle ingelesa eta Floridako Unibertsitateko irakaslea, espainiar estatura etorri da estreinako aldiz, Donostiako Aiete

ikastetxe nagusira eta San Pablo Ceu Unibertsitatea gonbidatuta. Bisitaldia baliatu du beste hiri batzuk ezagutzeko, hala nola, Madril, Iruña eta Valladolid, eta zenbait unibertsitatetan hitzaldiak eskaintzeko.

Joan den ostegunean, martxoak 12, hitzaldia eman zuen Aieteko ikasle-etxean, ehun irakasle eta ikasle baino gehiagoren aurrean.

Katolizismora bihurtu diren idazle anglosaxoi handiez jardun zuen.

Hitzaldiaren hasieran azaldu zuen bihurtze hauen arrazoietako bat dela Ingalaterra mila urtez katolikoa izan zela. Ildo horretan adierazi zuen Shakespeare katolikoa izan zela, orain zalantzatan jartzen bada ere, apaiz katolikoa izatea heriotzaz zigortzen zen aro batean.

Hitzaldian batez ere XIX. mendearen amaierako edo XX. mendearen hasierako J.R. Tolkien eta C.S. Lewis

idazle garaikideez jardun zuen. Aipatu zituen idazleen artean Chesterton, Belloc, Oscar Wilde, C.S. Elliot eta Hopkins nabarmendu behar ditugu, guztiak katolizismora bihurtuak. Esan zuenez, erlijio aldaketa literaturan islatu zuten guztiek. Adibidez, Chestertonen testuek Lewis katoliko bihurtzen lagundu zuten. Lewis katoliko izateko, garrantzitsuak izan ziren halaber Tolkienekin izan zituen elkarrizketa biziak *Eraztunen jauna* osatuko zuen mitologiari buruz.

Bitxikeria modura, esan zuen eraztuna martxoaren 25ean suntsitu zela, Jainkoaren gizakunde egunean, Erdi Aroko zenbait tradizioen arabera Jainkoaren heriotzaren eguna ere izan zena. Beraz, eraztunaren hondamena erospenarekin lotu zuen. Modu didaktiko batean azaldu nahi izan zuen idazle horiek guztiek munduari igorri nahi zioten mezua:

“Kosmosaren ikusgarritasuna berreskuratzea, gizartean Kristautasuna berriro suspertuz, Ilustrazioak haren lilura kendu baitzigun”.

Aiete Ikastexe Nagusia

Aieteko ikastetxe nagusia Nafarroako Unibertsitateak Donostian daukan Teknologi Kanpusarena da. Unibertsitate zentro honen lehentasuna da ikasle guztiak jarduera guztietan zuzenean inplikatzeko. Ikasleak dira, beraien kezketatik abiatuta, ekimenak abian jartzen dituztenak, gainerakoien interesa pizteko asmoz. Horrek hainbeste jarduera egotea azaltzen du: etika eta politikari buruzko hitzaldi ziklo bukatu berri da eta orain martxo kulturalean murgilduta daude, mota guztietako kontzertuekin, artisten hitzaldiekin eta antzezpen batekin. Aldi berean ekumenismo ikastaroa egiten ari

dira, Teologia Fakultateak
koordinatuta, hitzaldiekin,
tertuliekin eta zine-forumarekin.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/joseph-pearce-idazlea-
aiete-ikastetxe-nagusian/](https://opusdei.org/eu-es/article/joseph-pearce-idazlea-aiete-ikastetxe-nagusian/) (2026 Urt 21)